

Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko azaroaren 25a / IV. urtea / 154. zenbakia



Abaunzko zalditxoa

Arraitzen (Ultzama) dagoen Abaunzko kobazuloan uda honetan azaldu da Ebro ibar osoko historiaurreko arte mugikorren —hormetan azaltzen ez dena— irudi bakarra: Zaldi buru ederra hogeitazentrotako harri bloke batean zizeldurik. Kobazuloa aztertzen zortzi urte eman ditu Pilar Utrilla Zaragozako Unibertsitateko irakasleak, 1976an Jose Migel Barandia-

ranek egin zion gomendioari jarraiki, eta urte hauetan guztietan hau izan da aurkuntza ederrena. Material guztia zehaztu ondoren —iaz beste bi harri bloke atera ziren, irudi askorekin— Nafarroako Museoaren esku egongo dira irudiak, baina dagoeneko Parisko Historiaurreko Museoak eskatu egin ditu, erakusketa egiteko.

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Sastraka itsuan

Zortzi orduko ihardunaldiari lotu zitzaizkionean hasi ziren komediak. Ospe txarra piskanaka hedatu zen, insignis pinuaren berde tristea euren sorretaz jabetzen zen modu berean. Uzkurak eta hitz gutxikoak zirela entzuten zen kalean, hiritik zetorren edozein gauzaren etsai amorratuak, ezjakinak, zekanak eta koleraz beteak; eskopeta gatzez beteak beti aldean, bere mugak zeharkatzera ausartzen zen edonoren aurka tiro egiteko prest. Aldeanos deitzen zieten Bilbo aldeko erdal-dunek, casheros kronista koshkerok. Solasean ere eskasak: '¿Quién tiró el piedra?'

'Horiek bizi dituk, horiek', aldarrikatu zuten luzegabe, 'bi iturritik edaten ditek'. Areago, harrotuta zebiltzala zioten ahotsak ere atera ziren: 'inoren beharrik ez balute bezala...'. Urteak pasa ahala isildu zen kaleko ahotsa, hitzen beharrik ez zegoela ohar-tu zirelarik. Baserrietan irautea erdietsi zutenak etxeorratzez inguraturik iratzarri ziren goiz batez, eta mendikoak zirenak periferiako anakronismo bilakatu ziren. Teilatu gorri bat eta horma zuriak. Gainontzekoak, aparte hartan geratu zirenak, basapistei esker hasi ziren maizago etortzen mundura.

Kale eta mendiaren arteko hitzarmena berriki sinatu dute, eta Agroturismo deritzo. Bateko zein besteko bizilagunek biderkaketa izena duten ibilgailuak erabiltzen dituzte, biak bezituzten dira kolore biziko txandalez, batek barazkiak eramango ditu, kirol materiala besteak. Hori bai, hirikoak nabarmentzeko joera dauka, 4x4 eragiketaren emaitza hamalau izan daitekeela erakutsiz.

Isildu gara. Isildu dira, hajek ere. Urte luzez lozorroan egon ondoren isolaturik geratu omen dira, merkatuaren atzaparra omen lepoan. Alternatibak eta ez dakit zer. Jakin nahi nuke zein lekutan duten gogoia. Astero topatzen ditudanengandik zaila egiten zait argibideak jasotzea. Jarduna atsegin zaiela dirudi, inoiz baino esplikazio gehiago ematen dute; ez ditu hainbeste kezkatzen arrotzaren itzalak, poztu egiten ditu kanpoko bategen etxea hartu eta konpontzen ari dela jakiteak. Edozein aitzakirekin inguratzen gaitzaizkienean jarrera ulerkorra azaltzen dute: 'galduko ez haiz bada! Hemen sortuak ere neketan ibiltzen gaituk. Sastraka alu hori...!'

Guk geziz eta kolorez jositako gure mapa eta gidak zabaltzen ditugu. Menditarrek ordea oihanean, gailurretan eta guk ikusten ez ditugun bidexidorretan jartzen dituzte begiak; halako lekuari ez dagokiola paperean paratu duten izena edo beste edozein komentario eginen digute. Lekua hustutzeko orduan oharitzen gara bakardadearen usain umela atxeki zaigula. Nekeza nork nor kutsatu duen jakitea, sorlekutik aldegiten duenari nekez lagun baitiezaiokoe sorlekuan bertan galduta sentitzen denak.

GURE AUKERAK

ANTZERKIA



'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko antzezlanaren taularatuko igande honetan, azaroak 27, Iruña Pequeño Teatro taldeak Urdiainen. 'Udazkeneko Bira' Gobernuak antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.30etan hasiko da, herriko pilotalekuan.

'Kontrabajua' izeneko antzezlanaren plazaratuko du igandean, azaroak 27, Maskarada taldeak Altsasun. Sakanako Kultur Zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da Gure Etxean.

ZINEMA



Win Wenders zinema zuzendari alemaniarren zikloarekin jarraituz, 'El estado de las cosas' izenburuko pelikula eskainiko du heldu den ostegunean, abenduak 1, Cineclub Lux-ek. Arratsaldeko 8.00etan hasita, Iruñeko Olite zinemaren izanena da. Sarrerak 350 pezeta salduko dituzte.

'Harlan County, USA' izenburuko pelikula botako dute gaur ostirala, azaroak 25, Nafarroako Museoa. Gobernuak antolatutako Zinema Dokumentalari buruzko zikloaren barruan, arratsaldeko 7.30etan hasiko da. Sarrera dohainik.

MUSIKA



Cojon Prieto y los Huajolotes musika taldeak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, azaroak 26, Aiegiko polikiroldegian. Emanaldia goizaldeko 1.30etan hasiko da eta aurretik, gauerdian hasita, 'Nahia' taldeak saio bat emanen du. Sarrerak 1.000 pezeta salduko dituzte.

Perlinpinpin Folk taldeak hiru kontzertu eskainiko ditu asteburu honetan San Adrian, Kastejon eta Baztanen. 'Folk ametsetan' zikloaren barruan, gaur gaueko 9.30etan San Adrianen izanen dira, bertako Kultur Etxean. Bihar larunbata, Kastejoneko joko dute, gaueko 10.30etatik aurrera, Kultur Etxean, eta igandean, azaroak 27, Baztango Salon Casinon ariko dira, arratsaldeko 8.00etatik aurrera.

BESTELAKOAK



'Intsumisioaren historia Nafarroan' gaiari buruz mintzatuko dira heldu den ostegunean, abenduak 1, Jose Mari Esparza idazlea eta Mikel Huarte eta Sebas Aristizabal intsumisioak Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartean. Ostegunero antolatzen dituzten mintzaldien moduan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da elkartearen bertan.

NAFAR KRONIKA


PATXI LARRION

Joko biziz

● Loreak gero eta merkeagoak omen dira. Horrela pentsa genezake, pasa den igandeko prentsa leitu ondoren. Komunikabide guztiak bat zetozen, katedratikoaren oinordekoa doktoratu egin zen, olinpoaren atek parez pare zabalik di-

ten, katedratikoa puntan zen, bera nagusitzeko gai zirenek ez zuten bere joko maila erakusten, zaletuek betidanik desiraduten bizitasuna falta omen zitzaien. Indarra oinarri bakarra gure jokoan. Beraz, ez zen harritzekoa gazte estirau honen

kontra eduki, bere herrikoen laguntza ezezik, katedratikoaren konfidantza ere bazuen, nonbait ez zebilen hain oker, katedratikoa berak jasan behar izan baitu bere jokoaren bizkortasuna. Garai berri baten atarian omen gaude. atzelariak mandatuen



tu. Hala suertatu zen ere 1993ko apirilaren 23an, etorkizunean erreinatzena deitua zen bestearekin lehiatu eta garaile aterazenean. 15 egunetako ametsa izan zen. Infernura kondenatua, baten bat, erretiratzea hobe zukeela esatera ausartu zen.

Garai nahasiak haiek, baztuek ikuskizuna ziurtatu zigu-

jokoak hainbat zaletu liluratu izana, beti lasterka, arriskatzen nolanahi, gehiegi arriskatu ere.

Itxaroteren ere jakin behar da. Urte t'erdia igaro behar izan du galdu zuena berreskuratzeko, tartean, olinpoaren lehiaketan parte hartzeari uko egin zion, horretarako ere kemena izan behar da. Halere, ez du dena

bila ikusi nahi ditugu atzeko kuadroetan, edota pasa den larunbateko lehia luze zabalean ikusi, oraingoz amets zoragarria baino ez dena. Aurki, bere nagusitasuna erakusteko parada edukiko du, eta irabaziz gero, poza eta samintasuna aldi berean, arerioa duen Inaxiok hori eta gehiago merezi baitu.

ASTEKO PERTSONAIK



Adolfo Eraso
Geologoa

Adolfo Eraso zientzi gizon nafarra New Yorkeko Zientziak Akemiaren bazkidea izendatu berri dute, «mundu osoko garapen teknikoari eman dion laguntza zientifikoarengatik». Lizarran jaioa duela 63 urte, Adolfo Eraso Madrileko Mehategi Eskola Teknikoko irakaslea da egun, eta izotzaren bilakaera eta eguraldiaren aldaketetan duen eraginari buruz egin duen lanarengatik da ezaguna. Espeleologian aditua, talde askoren sortzailea izan da Eraso, eta eraikuntza enpresa frankotan lan egin izan du, aholkulari tekniko gisa. Nazioarteko Espeleologia Erakundeko presidentea hainbat urtez, gaur egun izotzarekin buru belarri dago murgilduta, eta joan den hilabetean gaiari buruzko liburua aurkeztu zuen Madrilen.



Juan Cruz Alli
Gobernuko lehendakaria

Berriro ere zalantzan jarri du aste honetan Alli lehendakariak Iruñeko Udalaren jardura, bere ustez delitu zantzuak baitaude hirigintza arloan egin diren zenbait operaziotan. Prebrikazioa eta agiri publikoaren faltsutzea aipatu zituen Lehendakariak delitoak argitzerakoan, Nafarroako Parlamentuaren aurrean hitz egitera deitu eta gero. Auzi hau fisklaren eta Kontu Ganbararen esku utziko du UPNko agintariak. Oposizioko alderdien jarrera ere aipatzekoa izan zen. Sozialistek erantzukizun politikoak eskatu zituzkion eta IUK, berriz, udalaren Kontra kereila jartzeko eskatu zion. Berriro ere polemika piztu du Juan Cruz Alli lehendakariak; bere arrazoiak izanen ditu horrela jokatzeke.

AHAZTU GABE!

EKITALDIK



Ultzamako Kultur Patronatoak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako, hainbat ekitaldi izanen dira asteburu honetan eta hurrengoan Lizason. Ultzama, Odieta, Lantz eta Atezko bailarekoko laguntzat zuzendutako ekitaldiak, edozein ager daiteke prestatu duten bertso-bazkarira eta kontzertuetara.

Igande honetan, azaroaren 27a, Lizasoko Egain elkartean, bertso bazkaria izanen da, Millan Telleria eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Giroa alaitzeko, gainera, Kaxiano Lizartzako akordiolaria izanen da bertan. Bertso bazkarian partehartzeko bonoak salgai daude bailarako hainbat tabernetan eta Patronatoaren bulegoan, 2.000 pezeta. Bazkaria eguerdiko ordubietan hasiko da. Heldu den astebururako ere prestatu dituzte ekitaldiak, Sorotan Bele Hondarribiako folk musika taldeak kontzertua eskainiko baitu Ultzama pilotalekuan. Sorotan Beleren musika emanaldia gauerdian aldera hasiko da eta ondoren, gogoia dutenentzat gaupasa antolatua dago Elurte taldearekin.

Kontzertu eta gaupasara sartzeko sarrerak 700 pezeta salduko dituzte. Patronatoko bazkideek, aldiz, ez dute deus ordaindu beharrik.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2


Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketarako.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Atarrabia



Sebastopoleko Titiriteroak ariko dira gaur.

Kultura Autoktonoaren Astearen azken egunak

ATARRABIA

Aste osoan zehar burutzen ari den 'Kultura Autoktonoaren Asteak' gaur eta bihar izango ditu azken bi egunak, egun garrantzitsuenak egutegiari erreparatuz gero. Gaur ostirala, hilak 25, haurrentzako antzerkia izango da, euskaraz, Udal Zineman, arratsaldeko 5etatik aurrera. Sebastopoleko Titiriteroak taldeak 'Gizapiztiak' antzezlan taularatuko du. Gaueko 10.30etan, bestela, eta toki berean, folk kontzertua entzun ahal izango da Ganbara taldearen eskutik.

Bihar larunbata, hilak 26, haur animazioa izango da goizeko 11etatik aurrera, Adardunak taldearekin. Antso VI Jakitunaren Enparantzan izango da emanaldia, eta hortik aterako da ordubete beranduago, eguerdian, Zintzarri Txarangak jostatuko duen kalejira. Amaiera ordu bata t'erdietan izango da Kontseilu Enparantzan.

Ordu bata t'erdietan, hain zuzen ere, Dantza jaialdia izango da Kontseilu Enparantzan, Harizti Dantzari taldearekin, eta arratsaldeko zortzietan, kontzertua Eliza Nagusian, Coral de los

Corrales abesbatzarekin. Astea bukatzeko dantzaldia izango da Drindots taldearekin, gauerdian, Atarrabia pilotalekuan.

Egitaraua Atarrabiako Udaleko Euskara Zerbitzuak prestatu du, eta oraindik ikusgai dago Zacarias Ekaireren argazki erakusketa — 'Atarrabia 1940-1955' —, Tomas Donazarrek eta Alfredo Lakunzak bildutakoarekin. Abenduaren 8ra arte izango da zabalik Jubilatuen Elkarteko Areto Nagusian, astelehenetik ostiralera —17etatik 20etara— nahiz larunbat-igandeetan —12etatik 14.30etara—.

Sakana

Sakanako kirolaririk hoberenak proposatzeko zerrenda zabalik dago

ETXARRI-ARANATZ

Sakanako III. Kirol Astea ospatuko da Etxarri-Aranatzen abenduaren 12tik 18ra bitarte, eta, urtero bezala, alderdiko kirolari onenak aukeratuko dira bertan. Horretarako epaimahaia osatua da, kirol guztietako ordezkariak hartuta, eta proposamenak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren bata arte. Ehundik gora eskutan banatu dira dagoeneko eta proposamenak egin daitezke.

Sakanako Kirol Batzordeak, Etxarri-Aranazko Udala eta kirol taldeekin batera, hainbat sail proposatu ditu sarietarako



Kike Elizalde.

(abenduaren 17an egingo den afarian banatuko dira). Horrela, Sakanako kirolaririk hoberenari sari bat emango zaio, gizonen zein emakumezkoen atalean. 18 urtetik beherakoek ere bere saria izango dute, eta kirol talderik hoberena ere sarituko da. Horrekin batera, euskara gehien bultzatu duen taldeari sari berezia emango zaio. Halaber, epaimahaia, horrela erabakiz gero, bi aipamen berezi eman ditzake.

Proposamenak edozein kirol elkarte, entitate, ikastetxe eta norbanakok egin ditzake, baina horretarako abenduaren 1eko goizeko 12ak baino lehen aurkeztu behar dira Arbizuko uda-

Bertiz

Ahate jardunaldiak inguruko jatetxeetan

BERTIZ

Jatetxeak eta bertako turismoa indartzeko asmoarekin jarraiki, ahatea ardatz duten gastronomi jardunaldiak antolatu ditu asteburu honetarako Bertizko Parzuego Turistikoak Baztan, Bidasoa, Malerreka eta Bortzirietako hamabost jatetxeetan. Navarra Ardoak sormarkaren babespean, abenduaren 11 arte iraungo dute jardunaldiak. Ohi bezala, 1.500 eta 3.000 pezeta bitarteko menuak eskainiko dira, eta beti Navarra ardoekin zerbitzatuko, baina nahi duenak ohiko menua eskatu ahal izango du. Jardunaldi hauen bidez ahatea bertako sukaldaritzan duen tradizioa azpimarkatu nahi izan dute antolatzaileak.

Igantzioko La Villa jatetxeak, ahate urdaiazpikoa pikillo piperrekin batera eskainiko du, eta ahate konfita. Elizondoko Eskisaroik konfita eta ahatea laranjan egina, eta Urdazubiko Indiano Baita ostatuak, ahate konfita onddoekin. Elizondoko Santxotena jatetxeak ahate gibela eta ahate izterrekin egindako konfita, eta Irurritako Olari jatetxeak ahatea armagnacekin egina paratuko du mahai gainean. Lesakako Koxkontak hainbat aukera prestatu ditu: ahate urdaiazpikoa eta pikilloko piperrekin egindako entsalada; ahate konfita Oporto eta patatekin eta ahate *magreta* Oportorekin. Oiergiko Mugaire Hotelak ahatea madariez egina eta Doneztebeko Ameziak ahate betearen *magreta*. Elizondoko Garzain Hotelak *foie*, konfita eta *magreta*, eta Donamariako Bentak, *mousse du foie*, ahate kapritxoak, sagarrez gozotutako izterrak, *magreta* eta barrukien nahasketa. Berako Zalain jatetxeak, bestalde, *magreta* eskainiko du, eta *foie* freskoa, eta Elizondoko Galartza Etxeak konfita. Berako Elizalde *magreta* prestatuko du, ardoz egindakoa, eta Urdazubiko Beotxeak etxeko pate. Azkenean Elgorriagako Hilarionek entsalda epela, ahatea laranjan egina eta *magreta* emango du aukeran.

lean, kirol bulegoan, hautagaiaren kurrikuluma aipatuz. Horrekin batera, epaimahaia ere hautagaiak proposa ditzake, eta abenduaren 2an, gaueko 9etan, Etxarri-Aranazko udaletxean bilduko da, erabakia emateko.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Frankotiratzailak

Esaera zaharrak amodioan zein gerratean gauza oro zilegiak direla dio. Ni ez nator, inondik inora, astakeri horrekin bat, baina beste askok, gehienek, itsu-itsuan segitzen dute esaerak markatutako bidea. Gauzak horrela, egun krudeltasuna eta zilegitasun eza dira nagusi hala alor batean nola bestean. Telebistako albiste emankizunak ikustea aski da horretaz jabetzeko. Horietan maiz ageri dira, adibidez, Yugoslavia ohiko frankotiratzailak edonoren kontra jo ta fuego. Horren zilegitasuna argudio logikoen bitartez defendatzea nekeza denez, seguruenik «amodioan zein gerratean gauza oro zilegiak dira» esanez zurituko dute haien burua odol hotzeko hiltzaileok. Eta esaera berbera aitzakitza hartuz, badira gurean taktika bera erabiltzen duten aluak.

Horietako batek 16-17 urteko neskato baten kontra nola egiten zuen tiro zuzenean ikusi nuen joan den egunean Katu



tabernan. Ikuskariak erraiak nahastu zizkidan. Gupidagabe hark Ipar Poloan jaiotako eskimal peto petoa zirudien, inoiz ikusi dudana odolik hotzena baitzuen. Estreinako tiroarekin neskatoaren bihotza erdibitu zuen. «Zure nobio hori, Koldo, ezta?, bada asteburuero neska ezberdin batekin ikusten dut». Horren gibeletik, neskari donu tiroa eman zion. «Nik, mesede moduan, nahi izanen bazenu zurekin enroilatuko nintzateke gau batez, mendekua hartzeko aukera izan zenezan». Eta neskatoa hiltzaile gupidagabearen besoen —hatzaparren— artean erori zen.

Koadrilako batek frankotiratzaila ezagutzen zuen. Azaldu zigunez, tipoak asteburuero gezurrezko infidelitasunak asmatzen ditu bere sarraskiak egin ahal izateko. Nere uste apalean, Nazio Batuen Erakundeak (UNOK) auzian eskua sartu beharko luke.

Abaunzko (Ultzama) kobazuloan Nafarroan eta Ebro ibar osoan dagoen historiaurreko arte mugikorraren adibide bakarra azaldu da uda honetan. Pilar Utrilla Zaragozako Uibertsitateko irakasleak zuzendutako lan taldeak zaldiaren irudi ederra aurkitu zuten orduan, 20 zentimetrotako harri bloke batean, baina isilpean gorde dute kobazuloen 'suntsitzaileei' beldurrez.

Historiaurreko irudi bakarra

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Arzaizko kobazulo honetan azterketak hasi zirenetik —duela 18 urte inguru— aurkituntza garrantzitsua azaldu da uda honetan Abauntzen: armak eta silex geziak zeuden gela estuan, 20 zentimetrotako harri bloke batean zizelaturik, zaldi eder baten irudia. Orain arte gorde dute berria, neurri eta jakintzarik gabe kobazuloen miaketa lanak gogoko dituztenengandik libratzeko, baina behin lan guztiak bukatuta, Pilar Utrilla zuzendariak ez du dudarik: «Iberiar Penintsula osoan aurkitutako arte mugikorraren adibiderik ederrenetakoa dugu».

Ederra baita oso zaldiaren irudia. Silexko buril batez zizelaturik, aldi anitzetan egindakoa dirudi, marraz franko baitira, eta ez denak gezi berberarekin eginkoak. Utrillaren ustetan, kobazuloa ez zen etxebizitza iraukorra, eta irudia udan zizeldu zen. Nolanahi ere, oso arte aurreratuaren traza bete-betea du zaldiak, neurri eta zehaztasun bikainekoa baita.

Ez da bertan aurkitu den irudi bakarra, hiru izan baitira azken bi urte hauetan azaleratu diren mota honetako harri puskek. Iazko kanpainan bi, eta zaldia, aurretik. Oraindik marrazkiak egiten ari direla, lanen arduradunek ez dute zehaztu nahi izan iazko irudien balioa, baina Pilar Utrillak adierazi duenez, «ipuin baten antza» dauka irudi batek. «Badi-ra oreinak, ahuntzak, gizon bat, beste orein bakar bat, txahal moduko animalia gazteak, eta gero ibai bat, ahuntzalde biak banatzen dituen. Beste harri puskan zaldi bat azaltzen da, lau ahuntzekin batera».

Balioa? Handia. Nafarroan oso urria da harpeetako artea, eta soilik Berroberria eta Ukerdik (Urdazubi) kobazuloetan aurkitu ahal izan dira hainbat irudi. Arte mugikorrari —hau da, horretan azaltzen ez dena, direla irudiak, pitxiak edo, hau bezalakoak, grabatuak— dagokionez, are gutxiago. Baina ez Nafarroan bakarrik, baina Ebroko ibar osoan garrantzitsua da aurkituntza hau.

«Bloketan aurkitzen den tamaina honetako artearen lehen irudia da Abaunzko zaldia», azaldu du, harro, Pilar Utrillak. «Aragoi osoan ez dago ezer ez, ezta Katalunian ere, dauden iruditxoek ez baitaukate oso data fidagarria. Espainia osoan aurki-

Zaldiaren irudia ez Nafarroan bakarrik baina Ebroko ibarrean eta Iberiar Penintsula osoan banaketakoa da, eta oso garrantzitsua.

tu diren harri puska onenetakoak eta ongien kontserbatuetakoak dira Abaunzko irudi hauek. Orain arteko adibide aipagarriak Asturiasen dauden Las Candas eta Pendoko kobazuloetan aurkitutako grabatuak dira, asko —ehundik gora— atera direlako. Hala eta guztiz ere hangoak txikiagoak dira, eta kalitateari dagokionez, nahiko antzekoak. Altamiran dauden irudien maila daukate hauek, dudarik gabe, eta iaz aurkitutako harri bloke batean aurkitu genuen orein eme batek Altamiran dagoen orein handiaren planta bera dauka».

Harriaren azpian aurkitu ziren ikatz puskek asko erraztuko dute datatze prozesua, eta horretarako Oxfordeko (Ingalaterra) Unibertsitateko laboratoriora aukeratu du taldeak. Iaz aurkitutako iru-



Aurkituntza egin duen taldea, Auzako ostatuan, udan. Erdian, zutik Pilar Utrilla. Goian, zaldiaren irudia.

OSKAR MONTERO

Parisko Historiaurreko Museoa eskatuak ditu dagokioneko irudia eta kobazuloan aurkitutakoa, baina Nafarroako Museoa ere erabakia da hori.

diak datatzeko Estatu Batuetako bi laboratoriora erabili ziren, baina ez zen adostasunik izan azken emaitzarekin, eta aurretik, garestiagoa izanik ere, Robert Hedges doktore adituak zuzentzen duen laboratoriora bidali dituzte probak. Horretarako erabiliko den teknika ere aurretuenetakoa da. Karbono 14 teknikaren partez, AMS sistema erabiliko dute, as-

koz ere zehatzagoa. Nolanahi ere, K.a. 12.000-10.000 urtekoak izan daitezkeela ziurtatu du Zaragozako irakasleak, hau da, Madaleine aldi berantiar garaiakoa.

Abaunzko harpeak historia luzea dauka, ez bakarrik bertan aurkitu diren altxorrenatik, baita ere 1976. urtean egin ziren lehen azterketetatik gaur egun

arte ordu franko sartu dituztelako bertan ikerleak. Pilar Utrillak ikertzaileak egin du lan handiena. 1976an, tesia bukatu berria zuela, Joxe Miel Barandiaranengana jo zuen eta berak eman zion harpearen berri. Ataundarra adinean sartuta eta Gipuzkoan zituena hainbat azterkuntzatan buru-belarri murgilduta, lehen kobazuloetan zuzendari gisa lan



egiteko aukera sortu zitzaion Zaragozako ikerleari. «Joxe Miel Barandiaranek esan zigun oso harpe interesgarria zela, eta ikertzeko, asko atera zitezkeela eta». Ordudatik zortzi urte eman ditu bertan, bi txandatan. Hasieran 1976tik 1979ra, lau urte jarraian, baliabide hobeak izango zituztenen esku uzteari egokiago irizten zion arte. Baina inguruan Nafarroako Gobernuak egin gogo duen Arzaizko urtegiaren berriak 'urgentziak' azterketak egitera behartu zuen. Hortik aurrera Carlos Mazo bere lankidearekin —kobazuloari buruzko tesia egina daukana— egin du azterketa.

Abaunzko kobazuloak berak nahiko ezaugarri bereziak ditu. Nahiko motza da, eta Altuna ikerleak aurkitu den faunarekin egindako azterketaren arabera, soilik uda batez —maiatzetik urrira— erabili zen. Horrek asko erraztu du ikerketa, Utrillak azaldu duenez. «Oso denbora laburrean erabilia, negua heldu zenean alde egin zuten bisitariak, eta dena heldu da gaur arte ia ukitu gabe. Horrela, jakin bada-kigu non ontzen zituzten larruak, non egiten zituzten geziak, non egiten zuten lo eta abar. Bertan askoz denbora gehiago bizi izan balira, 'gela' hauek askoz ere nahasiagoak egongo ziren». Ondorioz, jakin ahal izan da grabatuak gizonen zioen gelan egin zirela.

Arte mugikorra aurkitu izanak, orobat, beste kategorian ematen dio kobazuloari, eta baita bertan izan ziren biztanleei ere.

«Arte mugikorrak», dio Utrillak, «azaltzen du bizitza eta sentimendu espiritual eta erlijiosoak nahiko garatuta daudela, horrelako altxorrek aurkitzen diren tokiak santutegi moduan erabiltzen direlako gehienetan. Gainera, irudi hauek kalitate aparta dute». Hain zuzen ere, Parisko Historiaurreko Museoa eskatu egin ditu dagoeneko irudiak eta bertan aurkitutakoa erakusketa egiteko, baina azken erabakia Nafarroako Museoa izango da, beti ere. Iruñeko egoitzan badi-ra dagoeneko Abauntzen bildutako hainbat gauza, eta orain ateratakoekin beste erakusketa bat egingo den ziurtasuna dauka Utrillak.

Orain, behin Madaleine aldi osoa aterata, ia bukatutzat eman daiteke lan osoa. «Soilik koska batzuk gelditzen dira, uda honetan bertan aurkitu genuen haritzaren hondarrek zuzen egiten dugun erabakitzea, kasu, baina gainontzekoa amaituta dago». Hala ere, bidean gauza batzuk galdu egin dira —Madaleine garaiko arpoi bat, kasu, ezin izan da sailkatu—, ustekabeak 'iker-tzaileen' lana dela eta. «Kobazulo honetan gertatu dena zoritxar handia izan da, hiru aldiz itxi baita, eta hiru aldiz ireki. Iaz itxi zuten Principe de Viana erakundeak, eta aurretik, paratuta zegoen hormigoizko paretari zulo handi bat egina zioten» azaldu digu Utrillak. Hori izan da, hain zuzen ere, berri hau hainbeste gorde-tzeko zergatia, alegia, gogoko ez diren bisitari hauek azaldu ez zitezten.

Nafarroa, urri

A.B. / IRUNEA

Nafarroak, paleolitikoaren arte sormen ardatz nagusien —Akitania, Pirinioak eta Kantabria— barruan egonik ere, ez ditu oraindik erakutsi bere altxorrak, aurkituntzak oso apal eta xumeak baitira. Soilik bi harpetan, biak Urdazubian, aurkitu ahal izan dira garai horretako hondarrak baina kobazulo asko dira lurralde osoan, ondo kokatuak gainera eta pentsatzekoa da ikerketa serioa eginez gero gauza asko aterako direla. Adituek, behintzat, hala uste dute.

Gure lurraldean paleolitiko garaiko adibide bakarra, haitzetako arteari dagokionez, Urdazubiko Alkerdikoa da. Kobazulo horretan, koniko itxurako estalagmita bat aprobetxatuz, silexko burilekin bisonte bat, zaldi baten atzeko parteak, orein bat ia osorik eta marra batzuk margotu zituen madeleine garaiko gizakume batek. Grabatuak dauden tokian kontuan harturik —argirik gabeko gelaxo bat—, esan daiteke santutegi bat dela, oso ohikoa garai hartan. 14.000 urte ingurukoak dira, erabilitako teknikek garai hauetan Kantabrian eta Frantziako Akitania erregioan aurkitu direnekin antza handia baitute.

Venus eta animalien irudiak, oso ugariak Europako azarnategi gehienetan, ez dira Nafarroan.

Askoz berantiaragoak baina, Etxaurin aurkitu dira beste hainbat irudi eta margo. Eskematiko estilokoak, hainbat tokitan aurkitu dira, eta ematen du alderdi hau gune bereziki garrantzitsua izan zela K.a. 3.250 eta 1.000. urteen inguruan. Estilo berekoak dira Basaurako kobazuloan aurkitu-

tako irudi batzuk.

Hormetako artearen eta mugikorraren arteko nahasketa gisa izendatu daitezke Beire inguruan aurkitutako irudi bi: zirkulu batzuk, marra handiz zizelaturik, eta marra zuzenek zeharkaturik. Estiloari dagokionez, petrogli-foak izeneko grabatuekin parekatu daitezke. Olazti eta Altsasu bitarte ba omen ziren Beireko irudi hauekin antz handia omen zuten grabatu batzuk, baina gaur egun desagertuak dira.


Urri bada hormetan, are urriagoa euskarri mugikorratan. Eta hori izan da beti azarnategi famatuaren altxor preziatuena. Izan ere, zentzu magiko eta estetiko nagusitzen zen heinean, horrekin lotutako bitxi eta irudiak behar izan zituen antzinako gizakumeak, eta horretarako zuten material ia bakarra harria eta hezurra zen —aurkitu izan dira, halaber, maskorren gainean egindako irudiak—. Hala ere, Venusen edo animalien irudiek, ugariak oso Europako azarnategi gehienetan uko egin omen diote Nafarroari. Gaur arte azaldu diren bakarrak Berroberriako (Urdazubi) eta Abauntzen bertan aurkitutako arpoiak izan dira eta bereziki hezurretan egindako irudi batzuk.

Neolitiko garaian, megalitismoarekin batera heldu ziren kontzeptu berriekin estuki lotuta, hezur eta harri gainean egindako irudiak ugaldun egin ziren arunt. Orduan azaldu ziren harri leundurik. Bereziki deigarri eta bitxiak dira Aizibitako trikuharraren gainean aurkitutakoak, T formako zulotxoekin.



Kobazuloak ugari izan arren, arte gutxi azaldu da Nafarroan.

OSKAR MONTERO



Nafarroako Taldekako Txapelketako bostgarren ihardunaldiko partida, 1994ko azaroaren 12an jokatu.

Jesus De la Villa, 2.470 ELOkoa (Iruñeko Oberena 'A')-Unai Garbisu, 2.310 ELOkoa (Iruñeko Orvina 'A').


1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Zc3,Zf6; 4.Ab5,d6; 5.d4,d4; 6.Zd4,Ad7; 7.0-0,Ae7; 8.Ac6,c6; 9.b3,0-0; 10.Ab2,c5; 11.Zf3,Ac6; 12.Ge1,Ge8; 13.Dd3,Zd7; 14.Zd5,Ad5; 15.Dd5,Af6; 16.e5. Jokaldi honekin peoiñen egitura haustera doa, abantaila pittin bat lortzeko asmoz. 16...Ze5; 17.Ze5,e5; 18.Dc5,Dd6; 19.Dd6. Zutabea aurkariaren menpe ez uzteko. Posizioan alde nimiñoa daramate txuriek, 'd6-an' jarriko den peoiaren ahultasuna dela eta.

19...d6; 20.aG-d1,Ae7; 21.Gd5,f6; 22.eG-d1,aG-c8; 23.c4,Gc6; 24.Gb5,eG-c8; 25.Ef1,Ef7; 26.Ee2,Ee6; 27.Ac1,Gc5; 28.Gd5,Gd5; 29.Gd5,Gc5; 30.Gd2,Ga5; 31.a3,e4; 32.g4,g6; 33.f3,f3 xa; 34.Ef3,h5; 35.h3,g4 xa; 36.g4,f5; 37.Ge2 xa,Ge5; 38.f5 xa,f5; 39.Gh2,Ge1; 40.Ab2,Gb1; 41.b4,Af6; 42.Af6,Ef6; 43.Gd2,Ee6; 44.Ee3,Gb3 xa; 45.Gd3,f4 xa. Ikus koadroa. Beltzen peoiak babesgaitzak ziruditen. Baina xake honetan baliatuz, berdinketa lortzeko estrategia martxan dago.

46.Ee4,Gd3; 47.Ed3,d5; 48.c5,a6; 49.a4,Ed7; 50.b5,b5; 51.b5,Ec7; 52.Ed4. Erregeak lotuta daude: berdinketa da. Beltzek ongi defendatu zuten beren esparrua, txurien ahaleginak gauzatzeko zirrikiturik utzi gabe.

Europako Britania Handian kokatua dago Scotland deritzaion lurraldea. Estatu horren iparraldean dago, Cheriot mendilerroak, Tweed, Lidd eta Sark ibaiek eta Solway golkoak banatuta. Bere hedadura edo luze zabaltasuna, ondoko irlen hedadurarekin batera, hirurogeita hamazazpi mila ehun ta hirurogeita bederatzia Km2koa da (77.179 km2) eta biztanlegoa bost milioi pertsona baino gehixeago, hots, 5.227.706 biztanle. Eskoziako lurralde honek administrati-

Eskozia



Xabier Santesteban

(BARAÑAIN)

etorriak izan zirela San Colomanok kristianizatu ondoren. Beranduago, hots, IX. mendean erresuma bat sortu zuten, baina huts egin zuen eta bakarrik XIII. mendearaino iraun zuen. 'Wallace', 'Bruce' eta 'Douglas-en' heroitasunak Britania Handiko inbasioa geldiarazi zuten denboraldi batez. Behin 1371. urtean Estuardoren dinastia hasi zen (Stuart, inglesak), baina erresuma hau Ingalaterrarekin batu zen betirako 1787. urtean. Gaur egun badago mugimendu autonomista bat.

Ingalaterran dagoen eguraldia atlanti-



boki hogeita hamahiru distrito edo kon-dado deritzanak ditu.

Lurraldea oso menditsua da eta baita arraro samarra ere, aintzira edo laku asko baititu, gehienak ipar-mendebaldeari begira, Highland deritzan lurralderantz zuzenduak. Ibai garrantzitsuenak edo handienak Clyde, Tweed, Forth, Tay Dee eta Spey dira.

Gaiaz aldatuz, hiri garrantzitsuak zonalde hauetan hauek dira: Edimburgo, 453.422 biztanlekin hiriburua delarik;

Glasgow, Dundee, Aberdeen..., eta abar.

Eskoziako lehenengo biztanleak keltiarrak izan ziren. Aintzinean 'caledonios' edo 'oihaneko gizonak' deituak izan ziren, eta berauen artean 'pictos' edo 'escotos', mendietan babesa hartu zutenak (Highland zonaldean), erromatarren konkistaren ondoren. Lowlanders edo eskoziarrak lan egiteko orduan langileak, etekinak gordetzea gustuko zutenak, merkatari onak eta fabrikatzaileak ziren. Uste da Caledoniarrak Irlandatik

ko ozeanikoa da, temperatura moderatu batekin, negu epel eta uda freskoekin. Haizeak euri asko dakar, eta Eskozia mendebaldetik ekialdera Europako zonalderik euritsuenetariko bat da, baina zalantzarik ez dago Britania Handiko leku euritsuena Ben Nevis dela, 4.250 mm-rekin. Eurijasak ez dira ugariak bakarrik, baizik eta iraunkorrak urte osoan zehar, eta haizea hezetasunaz dago beteta beti. Britania Handiko estatu lainotsua da Eskozia.

Ezbeharrak

Homeroren ustez (*Odisea*, VIII, *in fine*), jaungoikoek be-raiek gizakien ezbeharrak josten dituzte, etorkizun dauden belaunaldiak zer kantatu izan dezaten. Harrigarria da Esteribarko herri batean euskara galtzean euskeraz mantendu egin dira berriak. Informazio-iturria Javier Irigaray Imaz-en 'Rescaldos del euskera en Iroz' (Fontes Linguae Vasconum, 1979, 31. zb.) artikulua da. Esaldi bakan batzuk baino ez dira. Hala ere, oso adierazgarriak. Hona esate baterako bertso bat: *Petirigorri zaldian/lau atzetan zuriak/Elkanoko zelaietan/botatzen zuen iauntzia.*

Patziku Perurenak (El Diario Vasco, 1993ko uztailaren 28an) argitzen duenez, euskal erromantzetan agertzen den *lau hanketan zaldi zuria* zorigaitzaren sinboloa da. Euskal tradizioan izan duen ibilera aztertu eta esandako ondorioa ateratzen du. Eduardo Cirloten esanetan, Alemanian eta Ingalaterran zaldi zuriarekin amets egitea herioaren zantzua omen da. Beraz, Patziku Perurenak euskal baladetan bilatu zuen sinboloak badu parekorik beste lekutan. Petirigorri (Pellogorri, gaurkoratuz) Ultzaman gosearekin uztartutako irudia da. Goiko bertsoak gai-

JUANTXO URDIROZ

~~~~~



**Ez usteak zure atean joka**

**Petirigorri (Pellogorri, gaurkoratuz) Ultzaman gosearekin uztartutako irudia da.**

nera Santa Feliziaren istorioarekin zer ikusirik omen dauka. Gogora dezagun Santa Felizia andre done dela behartsuei ogia emateagatik akabatu zuela, legendaren esanetan. Hau da, Petirigorriren eta ezbeharren etsaia. Petirigorri versus Santa Felizia. Gosetearekin loturiko beste bertso batek iraun du: *Esteribarren ezpaluketelkarda degurren (egurrezkoa) txanponilez melukete (ez omen lukete) pasatikollau ilabete bizerik.*

Baina ezbeharren aipurik garbiena segidakoa da. Lehenagokoentzat ezbehar haundiena behartsua izatea zen, du-darik gabe. Eta euskara galdu arren, euskeraz esaten omen da

Esteribarren 'Au nere sorua dek! Zein dek? Pastu dek!'. Esaldi hori azaltzeko Lakuntzako pasadizo bat kontatzen du Javier Irigaray-k. Oraindino urte asko ez dela lakuntzar bat herriko soroak erakusten ari zitzaien arrotz bati. Bere sorora ailegatzean, aurrera segitzen zuen artean, horixe esan zion: —Hau nere sorua dek! —Zein dek?— galdetu zion berehala lagunak. —Pastu dek!— erantzun zion lakuntzarrak.

Urrats beteko zabalera duten soroak, ez dago esan beharrik, Petirigorri dituela gogoko. Santa Feliziak, berriz, bistak ematen duen guztia bezain luzeak.

**A**tzo arratsaldean amaitu zuten suhiltzaileek astelehenean hasitako itxialdia, Parlamentuaren aurrean Alfredo Gonzalez kontsortzioko buruak egin behar zuen agerraldia zela eta. Bertan Gonzalezek aurkeztu behar zuen arautegiari —240 langile inguru biltzen dituen talde honen eguneroko jarduera zehaztuko zuenari— urri iritzi diote dagoeneko suhiltzaileek.

## Suhiltzaileak sutan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Suhiltzaileen Kontsortzioaren barruan langileen eta zuzendaritzaren arteko arazoak aspaldikoak badira ere, joan zen astean bizitu ziren izugarri, Mendiko Erreskate Taldearen desagerpena erabaki zelarik. Azken tanta gertatu diren istiluen gaina jo zuen, eta suhiltzaileek itxialdia hasi eta Carlos Orta zerbitzuko zuzendariaren dimisioa eskatu zuten. Prentsaurrekoan azaldu zuten, joan den urriaren 24an —lau partaide gehiago eskuratu eta hilabetera, hain zuzen ere—, talde hau osatzen duten hamabi lagunek atalaren beraren berehalako desagerpena iragartzen zuten eskutitz bana jaso zuten. Eskututa ere, taldeko partaideek ez zuten arrazoiak argitserik izan Carlos Orta zerbitzuko buruarekin. Berria komunikabideetan agertu eta berehala, Alfredo Gonzalez Kontsortzioko zuzendariak argitu zuen desagerpena ez zela behin-betikoa, arautegia burutu bitartekoa baizik. «Taldea berriro osatu eta garatuko da», azaldu zuen.

Sindikatuak, ordea, berehala kaleratu zuten euren desadostasuna, eta suhiltzaileen eta zuzendaritzaren artean dauden harreman kaskarrei leporatu zioten taldearen desagerpena. «Arautegi berria egin behar baldin badute» aipatu du Jesus Braco LAB sindikatuko ordezkariak, «zergatik ez zuten desegin Uretako Erreskate Taldea ere, biak berdinak izanik?». Bere ustetan, dena sortu zen suhiltzaileek zuzendaritzaren erabaki bati aurre egin ziotenean. «Ikastaro batzuk eman behar zirela eta, Mendiko Erreskate Taldeko partaide bat baztertu egin zuten, 'istiluak' sortzen zituelako, eta denok esan genuen bera gabe —taldeko hasierako partaidea da, oso ondo prestatua—, ez genuela egingo. Horrek Ortaren haserrea eragin zuen».

**HAMAR URTE LANEAN** Duela hamar urtetik hona erakutsi duen maila txukuna eta meritu handiko ekintzak barne arazoekin nahastu dira Mendiko

**M**endiko Erreskate Taldearen desagerpenak eragin du egoera, eta sindikatuek zuzendaritzarekin izan harreman kaskarre leporatu diete erabakia.



Suhiltzaileek mobilizazio franko burutu dituzte aste honetan.

JOXE LACALLE

Erreskate Taldearen jardueran. Lan handia izanik —talde hau da Nafarroan mendiko erreskateetan aditu bakarra—, aspaldidanik eskatuak zeuden egitasmo nagusian aurikusita zeuden 24 lagunak, baina ez da inoiz izan arautegi propiorik, eta gauza franko finkatu gabe egon dira beti. Ho-

rrela, taldeak ez zuen egoitza bateraturik eta 12 partaideak sakabanatuta daude Nafarroako hainbat parketan. Ondorioz, erreskate bat egin ahal izateko funtsezko denbora galdu ohi da beti talde guztia osatu arte. Horri guztiari soluzioa eman nahian itxialdia iraun duen egunotan

eratu duten arautegian, talderik indartsuena Iruñean batzeko eskatu dute suhiltzaileek, horrek askoz ere praktikotasun handiagoa emango bailioke taldeari. Halaber, brigada guztietan talde honetako partaideak sartzeko proposamena egin dute, hirian ere beharrezkoak direlako.

«Gaur egun Iruñeko Singular eraikinean eztanda baldin bada zortzigarren pisuan, ez dugu zer eginik, ez baitago eskailerarik. Beraz, eskaladan adituak diren talde honetako partaideak oso beharrezkoak lirateke».

Horretaz gain, Iruñeko Aralar kaleko parkean ordutegiaren malgutasunaz mintzatu dira suhiltzaileak, eta lan baldintzak hobetzeko duela bi urte mobilizazioak hasi zirenetik zabaldu diren 472 zigor espedienteak ixteaz. «Kopuru honek garbi azaltzen du zerbait gaizki dagoela» azaldu du Jesus Bracok. «Funtsik gabeko arazoiengatik zabaldu dituzte zigor espedienteak: erreskate batean izaniko arazok komunikabideetan azaltzeagatik, edo egun libreak telefonoz eskatzeagatik. Horiek ez zaizkigu iruditzen jarduteko moduak, eta horregatik eskatzen dugu Carlos Orta jaunaren dimisioa».

Hain zuzen ere, kontsortzioko zuzendaritzarekin izaniko bileren ostean, negoziaketetan Carlos Orta ez baina beste pertsona bat paratzea eskaini zuten Alfredo Gonzalez presidenteak sindikatuei. Hauen ustetan, «honek erakusten du Orta ez dela bitartekari egokia langileen arazoei buruz mintzatzeko».

## Erreskaterik gabe

P.U. / IRUÑEA

■ Nafarroak hilabete darama mendiko erreskate talderik gabe. «Orain, mendian zerbait gertatuko balitz» azaldu du Braco suhiltzaileen ordezkariak, «ohiko suhiltzaileek egingo lukete zerbitzua, eta gerta liteke mendiko erreskate taldeko kide bat ez izatea. Izan ere, pare bat istripu izan dira dagoeneko, egoera honetan gaudela: Urkiagan ehiztari bat hil zen, eta handik igaro zen pertsona batek atera behar izan zuen gorpua; Belaguan izandako beste istripu batean Goardia Zibila joan, eta galdezka ibili zen Añamendi non ote zegoen...!». Koordinazioa ere ez da taldearen

ezaugarriak azpimarragarriena, eta mendizaleek frankotan azaldu dituzte euren kexak Nafarroan ezbeharren arloan lan egiten duten taldeen artean dagoen harreman faltaz.

Arazo hauek guztiak konpontzeko aste honetan bertan kontsortzioak aurkeztu du arautegi berria, eta bertan bi erreskate taldeek —mendi eta ur taldeek— 25 partaide izango dituztela zehazten da. Talde hauetan sartu nahi duenak urtebeteko zerbitzua beteta izan beharko du suhiltzaile gisa, eta frogatzen diren praktikoak gainditu beharko ditu, besteak beste. Taldetik kanpo geldituzko arazoak ere zehazten dira kontsortzioak onartutako

proiektuan, eta azpimarratzekoa da urtero egingo dela azterketa bat maila jakin ahal izateko. Gaintitu ezean, taldetik kanpo geldituko da suhiltzailea.

Sindikatuaren ustetan, arautegia «hutsa» da, «duela hogeita hamar urte boy-scout taldeek zutenaren parekoa». Salatu dutenez, ez da deus aipatzen talde honetako partaideek izan beharko litzuket betebeharrez, erregulazioaz... «Ez du ezertarako balio, normaltasun irudia emateko ez bada. Eta normaltasunik ez dago hemen». Halaber, proiektuari zuzentzeko denborarik gabe aurkeztu zaiela salatu dute, eta beren aurkako iritzia azaldu dute.

# «Seriotasunarekin ez goaz inora»

A.BARANDIARAN / IRUNEA

«Martxoak 6. Inozentzio Sagastibeltza Mata Unibertsitateko atezain lanpostua betetzeko frogara abiatu da. Bere ametsa Neil Young-en Crazy Horse taldean gitarra jotzea den arren, azterketa egingo du, bere amak horretara behartzen baitu. Ama batentzat hogeita hamar urteko seme bat etxean eulikeriatan izatea, Neil Young-en Crazy Horse taldean gitarra jo nahi duena, triste askoa da. Ama batentzat hogeita hamar urteko semea etxean izatea bere gaztetasuna luzatzeko modu polita den

ratu du, ederki ohitua baitago Urdiroz sari hauekin.

**EGUNKARIA.**— Zergatik aurkezten zara hainbeste literatur sarietara? Gustatzen zaizulako, diruarengatik, ospearengatik?

**JUANTXO URDIROZ.**— Ospearengatik bat ere ez. Sariak zure burua behartzeko modu bat da, eta dirua amua. Zergatik da jendea behi deitzailea? Inork ez daki. Nik idazten dut, baina ez naiz idazlea. Idazlea pertsona profesional bat da, buruan hartu, berotu eta nekatzen dena, eta nik begirune handia diet.

**EGUNKARIA.**— Zure idazkie-

deak: alde tristea eta ironikoa. Eta nik uste dut lehena gehiago lantzen duela. 'Bi anai', adibidez, oso tristea da. Geure giroa izango da, eta akaso inora ez goazen herri bat gara.

**EGUNKARIA.**— Idazten duzue horretaz pentsatzen duzu?

**URDIROZ.**— Bai. Helburua pentsatzen dut lehendabizi, eta zerbait harrigarria behar du izan. Hori da idazteko dudan modu bakarra, ez da abildade berezirik eta horretarako iturri batetik edo bestetik hartzen dut.

**EGUNKARIA.**— Zure idazlanetan, halaber, zuk aditu eta

idazten poesia. Horretarako behar da belarria, erritmoa eta jarraitzeko, eta nik ez dut. Irakurtzea, ordea, oso gustukoa dut.

**EGUNKARIA.**— Uste duzue asko irakurri behar dela ondo idazteko?

**URDIROZ.**— Tradizioa da, eta ez bazaude tradizio horretan sartuta guztiz galduta zaude. Behar da irakurri literatura ulertzeko. Neure amatxik nahiago zituen iragarkiak pelikula baino. Pelikula bat jarraitzeko ez zuen ahalmenik, tradizio faltarengatik.

**EGUNKARIA.**— Erdaraz ere irabazi duzue sariren bat.

**URDIROZ.**— Idazteko errespetu handia daukat, eta erdarari gehiago. Ez daukat euskaraz

## Juantxo Urdiroz


IRAKASLEA



SOSLATA

### «Ez naiz idazlea»

Jenero xumekoak, ezusteak, barregarriak suertatzen diren ipuinak eta pasadizoak ditu gustukoaren Markelainen jatorria duen Juantxo Urdirozek. Nafarkaria honetan asteroko kolaboratzaile, istoria eta gertakizunen etengabeko biltzailea, jasotzailea dugu erdal filologian lizentziatua dena. Lehiaketa frankotan saritua, iaz Iruñeko Udalarenean saritu zuten ipuina luzatzekotan dago, eleberri luze samarra egiteko. Hala ere, idazlea ez dela dio, begirune handia baitie «burua nekatzen duten horiei». Luze gabe sail berri bati ekingo dio orrialde hauetan, nafarren sexu gora-beherak eta arazoak aztertzei, hain zuzen.



Juantxo Urdiroz.

JOXE LACALLE

arren, triste askoa da, batez ere, Neil Young-en Crazy Horse taldean jotzean baino pentsatzen ez baldin badu». Halakoxea du hasiera Juantxo Urdiroren 'Desolatio-desolationis' ipuinak, Iruñeko Udalak antolatutako Egile Berrientzako IX. Literatur lehiaketan garaile atera denak. Atxagaren poema batean oinarrituta, 'triste bizi gara eta' topikoari erantzuna ematea, barre egiteko modu bat dela dio markelaindarrek, «geure buruaz barre egiteko modu bat, hain zuzen». Sari honekin batera poesia sailekoa ere esku-

tan beti bada ironia handia. Zergatik?

**URDIROZ.**— Nik hartzen dut idazki bat, kasu honetan T.S. Elliotena, eta egiten ditut bariarioak, neure mundura ekartzeko. Joan den urtean, kasu, egin nuen bat Audenen poema batekin. Neure asmoa da jenero barregarria egitea.

**EGUNKARIA.**— Nahiago duzue literatura joko bezala?

**URDIROZ.**— Seriotasunarekin ez goaz inora. Ez pertsonalki, ez aberri gisa, ez ezer ez. 'Euskal depresioa' oso topiko polita da, baina ez da ona. Atxagak berak baditu bi al-

ikusitakoa mundu imajinarioarekin nahasten duzu. Zeinek dauka garrantzi handiagoa?

**URDIROZ.**— Elliot poetak esana du jendeak ezin dituela errealitate dosi handiak jasan, eta ados nago. Azken finean edaria, erlijioa, lasterbideak dira, ez dakit nora joateko. Asteburuko mozkorraldia horiek azken finean hori dira, errealitate alde egitea. Eta literatura, halaber, hortik alde egiteko modu bat da.

**EGUNKARIA.**— Berdin idazten duzue poesia zein prosa?

**URDIROZ.**— Ez dut sekulan

idazteko dudan ausardia. Badakit askoz hobeki menparatzen dudala erdara euskara baino, baina erdaraz ez nintzateke aurkeztuko sari hauetara.

**EGUNKARIA.**— Ez ote dago ausardi gehiegi euskaraz idazteko?

**URDIROZ.**— Askotan esaten da euskal literatura dirulaguntzen bizkarretik bizi dela eta hori txarra dela eta jende asko aurkezten dela sarietara... Hori txotxolakeria da. Literatodenen-denak, hasita Shakespearekin eta gaur egun arte, paraisitoak dira, eta beti laguntzairen baten zain egon dira. Badira Pessoa bezalako adibideak, banketxe batean lan egindakoak..., baina gehienak bizi izan dira sarietatik. Hor dago Atxaga, euskaltegiatako fenomeno. Eta hor badira 30.000 lagun inguru, merkatu bat, eta horrekin sortu dugu Literatur Sari Nazional bat.

«Elliot poetak esana du jendeak ezin duela errealitate dosi handiak jasan, eta ados nago berarekin».

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

